



EBAZPENA, 2023ko ekainaren 5koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baitira Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan, Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen kidegoan, Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoan, Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen kidegoan, desagertzeaz dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoan eta Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako irakasle espezialisten kidegoan iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan lortutako merezimenduen guztizko puntuazioak (Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko Aginduen bidez deitua).

Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko Aginduen 6.4 oinarrian ezarritakoarekin bat etorriz, argitara eman dira Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza Unitateek barematu behar dituzten merezimenduengatik izangaiek lortutako merezimenduen behin betiko puntuazioak (agindu horien bidez, aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko prozesurako deialdia egin zen kidego hauetan: Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan, Hizkuntza Eskola Ofizialetan, Musika eta Arte Eszenikoetan, Arte Plastiko eta Diseinuan, Maisu-maistren kidegoan, desagertzeaz dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoan eta Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako irakasle espezialisten kidegoan). Bestalde, epaimahaiek 3.2 ataleko (Etengabeko prestakuntza) merezimenduengatik behin betiko puntuazioak argitaratu zituzten. Baremazioa epaimahaiek egin zuten.

Beraz,

EBAZTEN DUT

Lehenengoa. – Argitara ematea Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoetako, Arte Plastikoetako eta Diseinuko eta Maisu-maistren Kidegoetan, desagertzeaz dagoen Lanbide Heziketako Irakasle Teknikoen Kidegoan eta Lanbide Heziketako Sektore Bereziatako Irakasle Espezialisten Kidegoan iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespenezko prozesuan izangaiek lortutako merezimenduen guztizko puntuazioak (Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko Aginduen bidez deitua).

Bigarrena.- Guztizko puntuazioen zerrenda hemen argitaratuko da:

LHko sektore bereziatako irakasle espezialistentzat

<https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) - «Arlo pertsonala» – «Izapideak langileekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2022. Irakasleak. Egonkortzeko salbuespenezko prozesua-LHko sektore bereziatako irakasle espezialistak – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Emaizak» – «Lehiaketa-fasea: guztira».

Gainerako kidegoetarako

<https://hezigunea.euskadi.eus/>(«Erabiltzailea (NAN/AIZ)» eta «Pasahitza» sartuz) - «Arlo pertsonala» – «Izapideak langileekin» – «Administrazio-izapideak» – «EPE 2022. Irakasleak. Salbuespenezko egonkortze-prozesua» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» – adierazi kidegoa eta espezialitatea – «Emaizak» – «Lehiaketa-fasea: guztira».



Hirugarrena.- Guztizko puntuazioaren aurka ezin izango da errekurtsorik jarri, eta interesdunek, hala badagokio, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu beharko dute hautatutako izangaien behin betiko zerrendaren aurka.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 5a

LANGILERIAREN KUDEAKETA ZUZENDARIA

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO